

LEIARPEKO ARETOA

Leiarpeko Aretoa jatorriz aterpe bako gunea izateko diseinatu eban arkitektoak. Ordurik hona hainbat zereginetarako erabili da eta gaur egun Erakundearen zereginetarako izaten da.

Areto horretan dagoan gauzarik aitagarriena leiarrezko estalkia da, 1985.ean Bilboko Vidrieras de Arte S.A. enpresek egindako artisaularia. Gernikako Haretza Bizkaiko herrien topagune sinbolikotzat agertzen da leiarreko irudietan. Erdialdean Haretza eta jarlekuak dagoz, antxinako jatorrizko Batzar Nagusien gomutagarri; albo baten "Lege Zarra" idatzita agertzen da, Bizkaiko Jaunek zin eta bete egin behar ebezan Legeak gogorazoteko; eta, beste alde batetik, Lurraldearen ekonomiari buruzko irudiak. Inguru guztian Bizkaiko herrietako monumenturik adierazgarrienak agertzen dira.



J.M. Iparragirre (1820-1881).
Anselmo de Guineá, 1877.

Leiarpeko aretoan Erakundeagaz lotutako erakusgaiak ikusi geinkez.

- **J. M. Iparragirre** "Gernikako Arbola" abestiaren egilearen gitarrea.
- Batzar Nagusien bozketetan erabilitako **zidarrezko bolatxuak** (XVII. mendekoak).
- Ahdun Nagusien **agintari-makilak** (XVIII. mendekoak)
- Batzar Nagusietan erabilitako **zidarrezko idaz-tresnak** (XVIII. mendekoak).
- **Agintaritza-makilak** (Eleizateetako ordezkarien agintaritzaren adierazgarri ziran).
- Bizkaiko Jaurretiko agintarien zin egiteetan erabiltzen eben **kurutzea**
- Jon Argatxa Etxeandiak 1931.ean egindako **maketea**, 1978.ean barriztutakoa.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

UDAKO ORDUTEGIA: 10:00-14:00 • 16:00-19:00
NEGUKO ORDUTEGIA: 10:00-14:00 • 16:00-18:00
ASTE GUZTIAN ZABALIK

GERNIKAKO BATZARRETxea
Allende Salazar, 48300 Gernika
T: 94 625 11 38



batzar.etxea@bizkaia.net
www.jggbizkaia.net

BATZAR NAGUSIEN **BILBOKO ADMINISTRAZINO-EGOITZA**
Hurtado Amezaga, 6. 48008 Bilbo
T: 94 406 67 00




GERNIKA



TREN GELTOKIA
 APARKALEKUA
 AUTOBUSA
 GERNIKAKO BATZARRETxea

GERNIKAKO BATZARRETxea



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

GERNIKAKO HARETXA

Gernikako Haretza da euskaldunek munduan zehar daukien ikurrik entzutsuena. Hasiera baten Haretza horren gerizpean egiten ziran Bizkaiko herriek izendatutako ordezkarien Batzar Nagusiak.

Etxearen kanpoaldeko landan, zutabez inguratuta, Haretz Zaharraren enborra dago. Hori gugana heldu dan Haretzik zaharrena dan arren, bada goz zaharragoen lekukotza emoten daben dokumentuak. 1860. urtean, horren ondorengoa sartu eben eta 2004. urtera arte egon zan estalpeko harizko jarlekuen aurrekaldean. 2005. urtean sartu eben Haretz barria, ordurako 19 urteko zugaitz edarra zala. Euskal Herriaren sena eta izaerea belauldiz belauldiz igaroten dan moduan, Gernikako Haretzek be Euskal Herriaren ikurra izaten jarraitzen dabe belauldiz belauldiz, ondorengoak aurrekoaren oinordekotza hartuta.

Batzarretxearen aurrekaldeari begiratu ezker, laster baten ikusten da apainduraz gehiegikeriarik bakoa dala, eredu neoklasikoak agintzen eban moduan. Etxearen atzekaldean estalpeko jarlekuetarako erakintxua daukagu, zutabez hornidua




2005. urtean sartu eben Gernikako Haretza mendeetan Batzar Nagusiei gerizpea emon deuten Haretxaren oinordeko zuzena da.

eta eredu neoklasikoan eginda hori be.

Inguru hori gauza berezietarako erabilten da gaur egun, Lehendakariak eta Ahaldu Nagusiak karguari zin egin behar deusienean, esaterako. Oritari baten jasota dagoz Jose Antonio Agirre Lehenengo Lehendakariak zina egiteko esandako berbak. Berbok eredu bihurtu dira leku horretan zin egin behar daben agintarientzat.



1860 sartu eben Haretza, gaur egun dagoanaren aurrekoa.



Haretz Zaharra 1700. urtearen inguruan sartu eben.



Areto honetan Batzar Nagusien Batzarrak egiten dira. Batzar Nagusiak bizkaitarren ordezkariak politikorako erakunde nagusia dira. Batzar Nagusiek, esaterako, Ahaldu Nagusia hautatzen dabe, Foru Aldundiak bete behar dituan foru-arauak ataraten dabez eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontuak onartzen dabez.

gari, bertan jarraitzen dabe altareak eta ur bedeinkatutarako harriek.

Aretoaren apainduraren nabarmentzea da Bizkaiko Jaunen erretratuen zerrrendea. Erretratuok XVII. mendekoak dira, Sebastian de Galbarriartuk eta Bustrin anaiek egindakoak. Erretratuen goikaldean, hamar txartel dagoz, Bizkaiko Jaunek foruen zina noiz egin eben gogoratzeko. Jaunek herrialdean agintea euki gura baeben, Foruak gorde eta beteko ebezala zin egin behar eben, Foruok herriak, ohituran eta ekanduetan oinarrituta, bere buruari emondako legeak ziran eta.



BATZAR ARETOA

Batzarretxearen erdigunea da, Areto horretan egiten dira-ta Bizkaiko Batzar Nagusiak. Antxinako Batzar Nagusiak, orduko ohitureari jarraituz, kanpoan, Gernikako Haretxaren ondoan, egiten ziran. Haretxetik hur Antiguako Andra Mari ermitatxua egoan, Batzarrak egin aurreko eleizkizunetarako zein beste ospakizun batzuetarako, esaterako Bizkaiko Jaunek foru-zina egiteko. Denporeak aurrera egin ahala, Batzarrak ermita barruan egiten hasi ziran. 1826.etik aurrera, erakundearen beharizanak hobeto beteteko etxe egokia behar zala-ta, jatorrizko ermita bota eta gaur egun dagoan etxea egiten hasi ziran, Antonio de Etxebarria arkitektoaren eskutik. Politikea eta erlijioarenak alkarlotuta egoteko ohitureari jarraiturik, Batzar-Aretoa be gauza bietarako balio izateko pentsatuta egoan. Eleiza eta Legebatzara da aldi berean. Bikoiztasun horren erakus-

BATZAR ETXEA

Bizkaiko Batzar Nagusiak Herrialde honen gobernu organo gorena izan dira, Erdi Aroan hasi eta gaur egunera arte. Antxina eleizateek aukeratutako ordezkariak batzartzen ziran eta, mendeak joan ahala, aldatuz eta egokituz joan dira Batzar Nagusiak, historian zehar gertatutako une larriak gaingiduz, esaterako Foruen ezabaketea (1876).

Batzarretxea eta Gernikako Haretza gure herriaren historiaren ikur biziak dira. Batzarretxea -Bizkaiko legebatzarraren egoitza da- eta Foru-Haretza Euskal Herrialdeen topagune dira, kultura- eta etnografia-tradizino berezi eta aberatsen jabe dan herri honen alkarleku.



"Bizkaitarrek Fernando Katolikoa Erregeari 1476.ean egindako esku-mosua". Francisco Mendieta. 1609. Batzar Nagusiak jatorriz non egiten ziran ikusi leiteke eta lekukotza etnografiko bikaina da orduko jantziak zelangoak ziran ikusteko.



"Bizkaiko Jaun baten zin-egitea". Anselmo de Guinea. 1882.